

TESTU ETA ARGAZKIAK



Ionitz Gonzalez
Lertundi
(Akolita, 1980)


Biologian Izenitakoa eta ikaslea. Kirok eskalatzeko amoratua; 25 urteko goi-hala go daramatza eskalatzeko. Hainbat arditu ditu idatzik zenbait hedabideetan, Pyrenean, Berriaren, eta Argia nezakoak. Egun, Pyreneako emedatzeko kidea da.

XABIER ORMAZABAL MENDI-FESTA

Joan den udaberrian, Xabier Ormazabal mendi-festa ospatu zen Urretxun, maiatzaren 25ean. Ekitaldia Xabierren oroitzapena bizirik mantentzeko asmoz antolatu ohi da, eta hainbatekintzaz gain, mendiko jarduerak sustatzeko beka bat eskaini ohi da Urretxuko udalaren laguntzaz. Aurren, saritua Ainhoa Unanue Bereziartu zumarragarrar izan da, eta mendizalearen asmoa Alaskara joatea da, eskiatzer a eta biziak ibiltzera.

Aurtengoa jada mendi-festaren laugarren urteurrena izan zen, eta beste behin ere, Urretxuko Gernikako Arboia plaza jendez gainetik egon zen. Hainbat ume, gazte, nagusi, eskalatzaile eta mendizale bildu ziren, eta gerituraturiko jende andanak hainbat jarduera eta ikuszkizunez gozatu ahal izan zuen.

Goizean goizetik, txikienek eskalada-egitura ikusgarriak eskalatzeko aukeraz gain, mendiarekin eta eskaladarekin lotutako zenbait joko eta jarduera izan zituzten (p.e. elasti-koa, slackline, tirolina, bazealondoreneko filma...). Helduek ere ez zuten aspertzeko bera handirik izan: goizean zehar mendi-tonbola, eskalatzaleen herri topaketa eta ondoren bazeari herrikoia. Arratsalde partean, hitzaldi interesgarriak (Euskal Herriko eskaladaren historiaren ingurukoak), Haitsak eta farrak libururen aurkezpena, eta amaitzeko goi-mailako eskalada ikuszkizuna (Euskal Herriko eskalada guneetako zenbait ordezkariren arteko lehiak). Festa giroari ukitu berezia



eman zioten Alex Txikonek eta Josean Mulasek, esatarri lanak eginez. Iluntze partean, bekairen irabazleak argitaratu eman ondoren, une hunkigarria izan zen. Andoni Ormazabal (festaren sustatzale nagusia) opari bat eskaini zitzakoen, eta jarraituan Jon Plazaola aktore ezagunaren bakarriketaz gozatu ahal izan zuten ikusleek. Festari amaiera bikaina emateko, nazio artean aski ezagunak diren mendizaleen profesioak izan ziren ikusgai: Marc Torralles eta Bru Brusonen *Animax de Coral*, eta Nico Favresse eta Sean Villanuevaaren *Riders of the storm*.

Lerro hauen bitartez, antolatzaleek udaletxeari, parte hartu zuten laguntzaileei, sustatzaleei eta hainbat boluntarioei esker make man nahi dizkiete, haien esker baitzen posible izango giro ezin hobean ospaturiko festa. Eskemik asko bihotzeari